

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udala**

**Bilbao Ekintza, EPELko Administrazio-Kontseiluaren 2022ko Irailaren 12ko erabakiaren pasarte, «Bilbo Bidean 2022 Plataforma Digitala» lehiaketa arautzen duten oinarriak onartzen dituen. BDNS (Identif.): 653878.**

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/653878>).

**Lehenengoa. — Helburua**

Oinarri hauen helburua «Bilbo Bidean 2022 Plataforma Digitala» izeneko lehiaketa arautzea da, zikloturistentzako plataforma digital bat sortzeko eta kudeatzeko enpresa-ekimen bat hautatzeko, erabiltzaileen arteko elkarreragina sustatu eta lurraldeak kirol-jarduera horri dagokionez duen erakar-garritasuna erakutsiko duena.

**Bigarrena. — Onuradunak**

Lehiaketan Bilbon enpresa berri bat abian jarri nahi duten ekintzaileak eta egoitza fiskala eta/edo soziala Bilbon duten banakako enpresaburuak eta/edo mikroenpresak eta/edo enpresa txikiak parte hartu ahal izango dute. Enpresa txikia 50 langile baino gutxiago dituen enpresa da, urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra 10 milioi eurotik beherakoa duena.

Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta horietako edozeini lotutako edo haren mendeko erakundeak ezin izango dira onuradun izan.

**Hirugarrena. — Sari ekonomikoa**

Bilbao Ekintzak honako aurrekontu-partida bideratuko du lehiaketa honetarako: 20.000 euro.

5.000 euro bi proiektu finalistentzat, bakoitzak 2.500 euroko zuzkidurarekin, aurkeztu beharreko prototipoa garatzeko.

Proiektu irabazleak 15.000 euro jasoko ditu, honela banatuta:

- Lehen ordainketa: 5.000 euro proiektu irabazle izendatzen den unean.
- Bigarren ordainketa: 8.000 euro plataforma aurkezteko unean.
- Hirugarren ordainketa: 2.000 euro marketin-plana abiaraztean, egindako ekintzen justifikazioaren bidez, dagozkion fakturak aurkeztu ondoren.

**Laugarrena. — Aholkularitza eta laguntza espezializatuak**

Bi proiektu finalistek BIG Bilbao Ekintzailetza Zentrotik Bilbao Ekintzaren zerbitzuen bidez gauzatuko diren aholkularitza eta laguntza espezializatuak jasoko dituzte, produktuen garapena lagunduko duten adituen bidez, hasierako fasetik eta etapa guztietan.

Gainera, aholkularitza eta laguntza horren barruan, proiektu finalistei Bilbo eta Bizkaia inguruko ekosistema zikloturistan sartzeko lagunduko zaie.

**Bosgarrena. — Lehiaketan parte hartzeko prozedura**

Lehiaketan parte hartzeko, interesdunek eskabideak, behar bezala beteta eta nahitaezko dokumentazioarekin batera, honako helbide elektroniko honetan aurkeztu behar izango dituzte: [big@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:big@bilbaoekintza.bilbao.eus), edo aurrez aurre BIG Bilbao Ekintzailetza Zentroan (Zabalguneko Eraikina) lanegunetan eta astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara.



**Seigarrena.—Eskaerak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2022ko urriaren 17an.—Bilbao Ekintzako Presidentea, Xabier Ochandiano Martínez